



EGUESIBARKO MERKATARITZA IBILTARIA ARAUZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ZIRRIBORROA

Txikizkako merkataritzaren, edo, bestela esanda, xehekako merkataritzaren ezaugarria da ondasunak eta zerbitzuak azken kontsumitzaileari saltzea. Jarduera hura merkataritza establezimendu baten barnean edo kanpoan egin daiteke.

Testu honen bidez, saltokitik kanpo egiten den salmenta antolatu nahi da. Salmenta hura ez da modu jarraian eta finkoan egiten, baizik eta leku jakin batzuetan, noizbehinka eta jarri eta kentzen ahal diren postuak edo instalazioak erabiliz. Praktika horri "ibiltari" izena ematen zaio, eta teknikoki, berriz, "sedentarioa ez den salmenta".

Gure asmoa da salmenta ez-sedentario edo ibiltari hori behar bezala kokatzea, alde batetik, merkatarien eta kontsumitzaileen eskubideak bermatzeko prozedura eta baldintzak arautzeko eta, bestetik, jarduera horrek hartzen duen bide publikoaren erabilera konkurrenteak arautzeko.

Ordenantza honen testu xedatzailearen helburua da araudia lege eta gizarte inguruabar berrietara egokitzea. Horretarako, egun dagoen azoka txikia jasotzen da, eta larrean gerta daitezkeen merkataritza ibiltariaren beste modalitate batzuk ere sartzen dira.

I. Kapituluua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da kalez kaleko salmentaren administrazio erregulazioa egitea, zehazten diren leku eta egunetan. Horretarako, aplikazio eremua Eguesibarko udalerrri osoa izanen da, Sedentarioa ez den Merkataritzari buruzko uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legearen 5. artikulua babesean. Era berean, ezartzekoa den osasun araudiak eskatutako osasun-baldintzak bete beharko ditu.

2. artikulua. Kaleko salmentaren kontzeptua

Salmenta ibiltariak dira ohiko edo noizbehinkako saltzaileek establezimendu komertzial batetik kanpo egiten dituztenak. Jartzen eta kentzen ahal diren postuetan edo instalazioetan egiten da, baita ibilgailuetan ere.

Bestalde, ez dira inola ere kaleko salmentatzat hartuko etxez etxeko salmenta, noizbehinkako salmenta eta horretarako prestatutako makinaren bidez egindako salmenta automatikoa, baldin eta instalazio finkoak badira.

3. artikulua. Bide publikoan saltzeko debeku orokorra

Oro har, debekatuta dago bide publikoan eta merkataritza gunetik kanpo egiten den merkataritza edo publizitate jarduera oro, ez badira ordenantza honetan, Sedentarioa ez



den Merkataritzari buruzko uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legean eta aplika daitezkeen gainerako legeetan araututako kasuak.

Salmenta ibiltaria ezin izanen da inola ere erabili eskean aritzeko aitzakia gisa, ezta diru-bilketak edo ausazko jokoak egiteko ere.

4. artikulua. Kaleko salmenta indarrean dagoen araudira egokitzeko beharra

Funtzionamenduari eta administrazio araubideari dagokienez, kaleko salmentaren jardura honako hauetara egokituko da: merkataritza jardueraren alorrean indarrean dauden lege xedapenetara, ordenantza honetara eta, hala badagokio, merkatu edo salmenta modalitate bakoitzeko baimenen funtzionamendua, kudeaketa eta esleipena arautzen duten udal arauetara. Hori guztia garatzen diren jardura espezifikoetan ezarri beharreko lege eta erregelamendu xedapenen arabera.

5. artikulua. Aldez aurretiko baimena

Ordenantza honetan araututako jardura guztiek Udalaren baimena beharko dute aldez aurretik. Baimen hori emateko, jardura bakoitza erregulatzen duten arauak aurreikusitako betekizunak eta baldintzak bete beharko dira. Baimen horren edukian, baimendutakoaren hedadura zehaztuko da.

Kalez kaleko salmentarako eskaerekin batera, aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

6. artikulua. Eskabideak ebaztea

Kalez kaleko salmentarako baimen eskaerak Eguesibarreko Udaleko alkatetzak ebatziko ditu, eta, alkatea egon ezean, bere ordezkioak. Alkatetzak gehienez ere bi hilabeteko epean ebatziko ditu, dokumentazio guztia aurkezten denetik zenbatzen hasita, betiere interes publikoa kontuan harturik.

Bi hilabete iraganik espedientea ebatzi ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

Administrazioak interesdunei ebazpena jakinaraziko die beti. Kaleko salmentarako udal baimenak gehieneko indarraldia izanen du, araudi bakoitzean zehaztuko dena.

Baimen horrek zehazki adierazi beharko du non erabiltzen ahalko den, leku bakarra edo batzuk izanen diren, zein egunetan egin ahalko den, bai eta baimendutako produktuak ere.

Baimena identifikazio txartel batean egonen da, eta txartel hura produktuak saltzeko erabiliko den postuan edo ibilgailuan ikusgai egonen da uneoro.

Baimenaren titularra hiltzen bada, lehen mailako senideek lehentasuna izanen dute beste lizentzia bat eskuratzeko.

Justifikatutako arrazoiak direla medio, baimen horiek ezeztatu ahalko dira, interes orokorreko arrazoiak daudenean eta aplikatzekoa den indarreko legedian ezarritakoa betetzen ez denean, eta ez du inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik emanen.



7. artikulua. Baimena emateko prozedura

Indarrean dauden udal arauetan ezarritakoaren arabera egingen da, betiere gardentasuna, inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza bermaturik. Era berean, baimenak emateko garaian, gizarte politikako helburuak, ingurumena babestekoak eta interes orokorreko den premiazko beste edozein arrazoi hartzen ahalko dira kontuan.

8. artikulua. Baimena emateko baldintzak

Kalez kaleko salmentarako lizentzia lortu ahal izateko, eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Alta emanda egotea Ekonomia-jardueren gaineko Zergari dagozkion epigrafeetan, dagozkion eremuan, eta hura ordainduta izatea.
- Ogasun Publikoarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Behar den Gizarte Segurantzako Erregimenean alta emanda egotea eta ordainketak egunean izatea.
- Saldutako produktuei eta salmenta instalazioei buruzko araudi espezifikoek ezartzen dituzten baldintza higieniko-sanitarioak betetzea, bai eta kontsumitzaileak babestekoak ere.
- Udal-ordenantza fiskalek finkatzen duten tasa edo kanona ordaintzea, bai eta ezartzen diren berme ekonomikoak ere.
- Saltzailearen helbidea jartzea, bai eta kontsumitzaileen erreklamazioei erantzuteko helbidea ere.
- Europar Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan, atzerriartasunaren arloan indarrean dagoen legeriak eskatutako bizileku eta lan baimena izatea.
- Eguesibarko Udalarekin inolako zorrik ez izatea.
- Merkatu mota bakoitzerako arautzen diren berariazko baldintzak, saldu beharreko salgaiaren arabera.
- Erantzukizun zibileko aseguruia izatea, jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituena.
- Salgaien jatorrizko marka eta jatorria egiaztatzen dituen dokumentazio nahikoa izatea.
- Elikagaien higienari buruzko prestakuntza ziurtagiria.

Aurreko baldintzak bete ondoren ematen diren lizentziak pertsonalak eta besterenezinak izanen dira, eta debekatu egingen da horiek eskualdatzea.

9. artikulua. Baimena iraungitzea

Salmentarako baimenak honako arrazoi hauengatik iraungiko dira:

- Diru-laguntza emateko epea bukatzea.
- Titularrak laguntzari uko egitea edo hiltzea, 6. artikuluan adierazitakoari kalterik egin gabe.
- Baimena emateko eskatzen diren baldintza guztiak edo batzuk galtzea.
- Behar diren tasak edo kanonak ez ordaintzea.
- 6. artikuluan ezarritako baldintzak baliogabetzea.
- Baimena galtzea dakarren zehapena.



II. Kapituluak. Kaleko salmentaren modalitateak

10. artikulua. Modalitateak

Salmenta ibiltaria modalitate hauetarik baten bidez egiten ahalko da:

10.1. Aldizkako merkatuak

Aldizkako merkatuak dira udal administrazioak zehaztutako espazioetan egiten diren merkataritza ibiltarien kontzentrazioak. Merkatu horiek aldi berean behin egiten dira, indarrean dagoen legediak horretarako ezarritako mugen barruan, eta, gaur egun, gehienez ere astean egun batean, larunbatetan, Sarrigurenen.

Merkatu berriak sortzeko edo lehendik dagoena lekuz aldatzeko erabakiak honako alderdi hauek zehaztu beharko ditu, gutxienez: kokapena, kudeatzeko modua, egiteko eguna eta ordutegia, gehieneko baimen kopurua eta merkaturatu beharreko produktuen kopurua, bai eta organo eskudunak bere garaian zehazten dituen baldintzak ere.

10.2. Noizbehinkako merkatuak

Noizbehinkako merkataritza da hiriko leku jakin batzuetan modu berezian egiten den merkataritza jardura, herriko jaiak edo bestelako azokak, jaiak edo kultura, kirol edo antzeko ekitaldiak izaten direnean. Era berean, organo eskudunak berariaz baimendu behar dituen eremu eta egunetan egiten da.

Noizbehinkako merkaturatutako hartzen dira berariaz herriko jaietan, azoketan edo jende asko bildurik beste leku batzuetan egiten diren salmentak.

Merkatu horiek egiteko, eskumena duen udal organoak eman beharko du baimena. Era berean, organo horren eskumena da: merkatu horiek non egon behar diren; noiz egiten diren; baimendutako salmenta produktuak; parte hartuko duten merkataritza kopurua; kudeaketa modalitatea; eta salmenta baimenak esleitzeko prozedura eta baldintzak ebaztea.

10.3. Salmenta bide publikoan jarritako postuetan

Modalitate hau kokapen finkoko eta aldi baterako lanpostuetan egiten da. Urtaroko salmenta finkoak hartzen ditu barne (txurro dendak, izozki postuak, gaztaina postuak...).

10.4 Salmenta denda-ibilgailuetan edo gastro-furgonetetan

Horretarako, ibilgailu bat erabiltzen da, baimendutako produktuen garraioari eta salmentari ezarri beharreko araudiaren arabera egokituta.

Eguesibarreko udalerrian, salmenta ibiltariaren modalitateak Ordenantza honetan jasotako baldintzetan egiten ahalko dira bakarrik, eta debekatuta egon behar da beste edozein salmenta ibiltari.



Salbuespen gisa, ordenantza honetan jasota ez dauden beste salmenta ibiltari moten kasuan, udal organo eskudunak jarduera horretarako behar den araudia ematen ahalko du ordenantza honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoari jarraikiz.

III. Kapituluak. Produktuak eta instalazioak

11. artikulua. Salmenta-produktuak

Ezin izanen da produktuak saltzeko baimenik eman aplikatzekoak diren lege eta erregelamenduen aurka.

Merkaturatu beharreko produktuen baimena mugatzen ahalko da, eta, hala badagokio, osasun agintari eskudunek produktu jakin batzuk saltzea debekatzen ahalko dute arrazoi hauengatik: higiena, osasun publikoa eta kontsumitzaileen edo erabiltzaileen segurtasuna.

Udal baimenetan berriaz baimendu ez diren produktuak ezin izanen dira saldu.

Udal organo eskudunak gehieneko baimen kopuru bat ezartzen ahalko du hiri-ingurunea babesteko, eta hori egingen da merkatu bakoitza arautzen duen dekretuaren edo ebazpenaren bidez.

Berriaz debekatzen da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aurkako produktuak saltzea

12. artikulua. Instalazioak

Bide publikoan saltzeko, harat-honat eramatekoak diren instalazio desmuntagarriak baizik ez dira erabiltzen ahalko, bai eta xede horretarako baimena duten ibilgailuak ere.

Salgaiak ezinen dira inola ere zuzenean lur gainean utzi, loreak edo berriaz baimendutako beste produktu batzuk izan ezik. Gainerako salgaiak postuetan kokatuko dira, lurzorutik 80 cm-ra gutxienez. Instalazio horiek kasu bakoitzeko xedapen partikularrak bete beharko dituzte, eta baimena emateko egintzan finkatzen ahalko dira, itxuran homogeneotasuna eta estetika bermatzeko. Bereziki zainduko dira higiena eta osasun baldintzei dagokienez dituzten ezaugarriak.

13. artikulua. Kokapena

Postuak zehazten diren lekuetan kokatuko dira, eta honako hauetan ezinen dira inola ere jarri: oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa zailtzen duten lekuak, erabilera publikoko eraikinetarako sarbideak, merkataritza establezimenduak eta horien erakusleioak, etxebizitzetarako erreserbatutako sarrerak edo trafiko-seinaleak edo bestelako seinaleak ikustea zailtzen duen beste edozein leku.



IV. Kapituluak. Kaleko salmentako merkatarien eskubideak eta betebeharrak

14. artikulua. Eskubideak

Kaleko salmentarako udal baimenen titularrek honako eskubide hauek izanen dituzte:

- Baimendutako salmenta postuak betetzea.
- Udalak baimendutako salmenta jarduera jendaurrean eta modu baketsuan gauzatzea, baimenean ezarritako ordutegian eta baldintzetan.
- Tokiko agintarien eta udaltzaingoaren babesa jasotzea, baimendutako jarduera egin ahal izateko.
- Egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztea, beren eskubideak eta interesak defendatzeko eta beren merkataritza jarduerak hobetzeko.
- Udalak egiten duen identifikazio txartela izateko eskubidea, honako hauek jasoko dituenak:
 - Titularraren identifikazioa.
 - Salmenta baimenaren balio-aldia.
 - Saltzeko baimena duten produktuak.
 - Lanpostu kopurua (hala badagokio).
 - Egon daitezkeen erreklamazioei erantzuteko helbidea.
 - Argazki inprimatua, beharrezkotzat jotzen denean.
- Zure salmenta-postua non kokatuko den jakiteko.

15. artikulua. Betebeharrak

Kaleko salmenta egiten duten merkatarien betebeharrak honako hauek dira:

- Erraz garraiatzeko moduko postu eta instalazio desmuntagarrietan egin beharko da salmenta, edo aplikatzekoak diren lege eta erregelamendu xedapenetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kamioi-dendetan, bai eta udal administrazioak eskatzen ahal dituen horietan ere. Nolanahi ere, segurtasun, osasungarritasun eta apaindura baldintza egokiak beteko dira. Salgai guztiak behar bezala babestuta eta lurzorutik 80 cm-ko gutxieneko altueran jarri beharko dira, altueragatik, pisuagatik edo ezaugarriengatik arazoren bat sortzen dutenak izan ezik, horiek, betiere, alde aurretik Udalaren baimena izanda. Merkatariak beren postuarekin eta salgaiekin besterik ez dute betetzen ahalko berariaz esleitutako espazioa.
- Lanpostuen titularrek ikusteko moduko lekuan jarri beharko dute Udalaren baimena. Udalaren baimenik gabe salduz gero, eta baimena horretan sartzen ez diren produktuak salduz gero, lanpostua kautelaz kenduko da, eta, hala badagokio, salgaiak kautelaz hartu edo konfiskatu egingen dira. Nolanahi ere, zehapen-espeditentea irekitzen ahalko da.



- Kontsumitzaileen kolektiboaren defentsa eraginkorra bermatzeko, saltzaileek erosketaren faktura edo gordekina emanen dute. Faktura horretan saltzailearen izena eta helbide iraunkorra, erositako salgaia eta salerosketaren zenbatekoa jasoko dira, hau da, erositako ondasunarengatik erreklamazio bat egiteko aukera ematen duten datuak. Hori guztia delarik ere, kontsumitzaileen erreklamazioei erantzuteko helbidea kartel ikusgarri baten bidez jakinarazi beharko dute saltzaileek.
- Merkataritza jarduera garatzean, merkatariek indarrean dagoen araudia bete beharko dute, alor hauei buruzkoa bereziki: osasun publikoaren babesa, merkataritza, merkatuaren diziplina, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa, zerga-araubidea eta Gizarte Segurantzza.
- Lanpostuen titularrak, baimendutako pertsonak edo lehen eta bigarren mailako senideak salmenta postuetan egonen dira salmenta orduetan. Pertsona juridikoek, berriz, baimendutako pertsona edo pertsonak nor diren zehaztu beharko dute. Baimendutako pertsona horiek pertsona juridikoaren bazkideak edo erakundearen konturako langileak izanen dira beti. Debekatuta dago baimenik gabeko pertsonak lanpostuan egotea.
- Merkatariek behartuta egonen dira udal langileek edo agintariak eskatutako dokumentazioa ematera, bai eta, edozein unetan, postuetara edo instalazioetara sartzen uztera ere, ikuskatzeko eta kontrolatzeko.
- Debekatuta dago megafonia edo aparatu akustikoak erabiltzea kaleko salmentan.
- Merkatariek uneoro erantzun beharko dute beren produktuen kalitateaz, eta honako hauek izanen dituzte debekaturik: kontsumitzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzea; kalitatean edo kantitatean iruzurrik egitea; faltsutzea edo ez identifikatzea; edota merkaturatzeko gutxieneko baldintzak ez betetzea.
- Pisatu edo neurtu beharreko artikulua dituzten lanpostuek behar bezala homologatutako baskula edo bestelako elementu metrologikoak izan beharko dituzte. Era berean, elementu metrologiko horiek behar bezala iragan beharko dituzte legezko egiaztapenak, dagozkien etiketekin berretsita.
- Eguneko merkataritza jarduera bukatzean, merkatariek ibiltariak garbitasun egoera onean utzi beharko dituzte postua eta haren inguruak.
- Postuen titularren erantzukizuna izanen da zoladurari, zuhaitzei edo, oro har, jabari publikoko ondasunei eragiten ahalko dizkieten kalteak konpontzea, beste pertsona batzuei egindako kalteen edo lesioen gaineko erantzukizuna barne.
- Baimenak irauten duen bitartean, merkatariek baimena jasotzeagatik dituzten betekizunak eta baldintzak bete beharko dituzte, baita ordenantza honetako xedapenak eta ordenantza bera garatzen dutenak ere, betiere udal agintaritza eskudunak emandako arauak ahaztu gabe.
- Lanpostuen titularrek langile guztiak alta emanda izan beharko dituzte Gizarte Segurantzako araubide komunean, autonomoenean edo erregimen komunitario



baliokidean. Era berean, baimena eskatzen zaien unean aurkeztu beharko dute langile horien zerrenda.

- Baimen bakoitzean zehaztuko da ibilgailuak merkatuaren esparruan nola sartu beharko diren, produktuen zamalanak egiteko. Salmenta ordutegian debekatuta dago ibilgailuak merkatu barnean zirkulatzea.
- Ematen diren lizentziak pertsonalak eta besterenezinak izanen dira, eta ezinen dira eskualdatu.
- Baimendutako pertsonak nahitaez egon beharko dira merkatu ibiltarian, eta huts egite guztiak behar bezala justifikatu beharko dira.
- Publizitate edo komunikazio baliabideak erabiliz gero, testuek hizkera ez-sexista izan beharko dute, eta ez dute genero estereotipoak zabaldu beharko.

V. Kapitulua. Merkatu bakoitzaren baldintzak

16. artikulua. Aldizkako merkatuak

Asteko merkatuan, honako hauek zehaztuko dira araudi espezifikoan: postuen kopurua, kokapena eta ospakizun egunak.

Gaur egun, asteko merkatu baimendu bakarra Sarrigurenen larunbat goizetan egiten da.

Aldizkako merkatu berriak baimentzeko, dagokion alkatetza dekretua erabiliko da, eta ordenantza honek alkatetza dekretua gidatuko du ordezeko arau gisa.

Alkatetza dekretu horretan, lanpostu kopurua eta lanpostu horiek esleitzeko irizpideak finkatuko dira.

Baimen horren aurretik, Eguesibarko Merkataritza eta Ostalaritza Mahaiaren iritzia jasoko da.

17. artikulua. Noizbehinkako merkatuak

Organo eskudunak noizbehinkako artisau, arte, nekazaritza edo azoka merkatuak baimentzen ahalko ditu, beren salgaiak merkaturatzeko.

Noizbehinkako merkatuak noizbehinkakoak edo ospakizun erregularrekoak izaten ahalko dira.

Merkatu horiek baimentzeko akordioan alderdi hauek zehaztuko dira: kokapena, baimendutako postuen gehieneko kopurua, eraikuntza ezaugarriak eta ezaugarri estetikoak, merkaturatu beharreko produktuak, azokak egiteko datak, saltzaileek bete beharreko baldintzak eta merkatu diziplinagatik ezarri beharreko gainerako inguruabarrak.

Nekazaritza produktuen azokak sasoiko artikulua saltzeko baizik ez dira eginen, eta ordenantza honetako arau orokorretan eta aplikatzekoa den higie eta osasun araudian jasotakoa bete beharko dute, bereziki zorrotz.

Postuen itxura bateratzeko eta ingurunearekin estetikoki bat egiteko, nahitaezko postu ereduak ezartzen ahalko ditu Udalak.



Postuen kokapenak ez du eragotziko lokal, atari edo bestelako higiezinetera sartzea. Era berean, pertsonen eta ibilgailuen joan-etorria erraztuko du, eta, nolana ere, udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dute postuen kokapen zehatza.

Noizbehinkako merkatuen baimenaren berri emanen dute Udaleko zerbitzu teknikoek, honako alderdi hauek zehazturik: bide publikoko kokapena eta okupazioa, trafikoa, osasuna, inguruko merkataritzaren gainerako eragin sektorearen gaineko inpaktua. Hori guztia alkatetzaren dekretu bidez ebatziko da.

Elikagaien salmentak indarrean dagoen osasun legedia bete beharko du, bai eta ordenantza honek eta dagokion ebazpenak xedatutakoa ere.

Gainerako produktuei dagokienez, ordenantzaren artikulua orokorretan xedatutakoa beteko da, bai eta salmenta ibiltari hura baimentzen duen ebazpena ere.

18. artikulua. Bide publikoan jarritako postuetan saltzea

Salmenta postu batzuek —finkoak edo mugikorrak— urteko garaietako produktuak saltzen dituzte (gaztainak, txurroak, izozkiak, loreak, besteak beste), saltokian berean kontsumitzen ez direnak. Produktu horietarik batzuk berenak dira eta beste batzuk ez. Izan ere, salmenta postu horiek eta ostalaritza postuak baimenduko dira alde aurretik zehaztuko diren lekuetan, eta enkante publikoko behar den lizitazio prozeduraren bidez.

Baimena ematea jabari publikoaren erabilera bereziko izaera izanen du, eta, horregatik, okupazio hura behin-behinekoa izanen da, horretarako deitzen den prozeduran araututako denborarako.

Ordenantza fiskalean finkatutako fidantzak eta tasak ordainduko dira, eta, gainera, esleipendunaren kontura izanen dira jarduera garatzeko behar diren zerbitzuak, hala nola argiak, ura...

Lanpostuek bete beharreko azalera berriazko araudian zehaztutakoa izanen da, eta, nolana ere, udal zerbitzu teknikoek adieraziko dute non kokatuko diren zehazki.

Lanpostuen esleipendunek egoera onean eta garbi eduki beharko dute baimendutako jabari publikoaren zatia, eta horrek sor lezakeen narriadurari ezarri beharreko fidantzarekin erantzunen diote.

Udalak, hiri altzariekin bateragarriak diren irizpide estetikoak ezartze aldera, salmenta mota hori gauzatzeko lanpostu eredu jakin batzuk erabiltzea nahitaezkoa ote den erabakitzen ahalko du.

Nolana ere, postu horiek bide publikoan jartzeak eragindako merkataritza sektoreari edo sektoreei kontsulta egingen zaie, Merkataritzako eta Ostalaritzako Mahaiaren bitartez, postuen kopurua eta kokapena zehazterakoan.

19. artikulua. Denda edo gastronomia ibilgailuetan saltzea

Salmenta mota hori egiteko erabiltzen den ibilgailuak baimendutako produktuen garraioari eta salmentari aplikatu beharreko araudiaren arabera egokiturik egon beharko du.



Denda edo gastronomia ibilgailuetan larunbatetako azoka txikian edo noizean behingo merkatu, ekitaldi, azoka edo jaietan baizik ez da saltzen ahalko, ez bada Udalak berariaz erabaki duela salbuespenez eta unean-unean jartzen ahal direla.

Eguesibarko udalerrian mota horretako ibilgailuen instalazio iraunkor eta finkoa berariaz debekatuta dago.

Unean uneko edo noizbehinkako instalaziorako, eskumena duen organoak zehaztuko du zer ekitalditan baimenduko den food truckak edo gastronomia ibilgailuak instalatzea, honako alderdi hauek kontuan harturik: kokapena, bertaratuko den jende kopurua, inguruan dauden ostalaritza negozioak, etab.

Bi kasuetan, elikagaiak salduz gero, horietako bakoitzari aplika dakizkiokeen araudi tekniko-sanitarioak beteko dira.

VI. Kapitulua. Zehapen-araubidea

20. artikulua. Udalaren eginkizuna

Udalak, bere eskumenak erabiliz, ordenantza honetako xedapenak eta une bakoitzean merkaturatzearen arloan indarrean dauden kontsumitzaileen higiene, osasun, segurtasun eta babes arauak behar bezala betetzen direla zaindu eta bermatuko du.

21. artikulua. Udalaren ahalmenak

Udal agintariek, zaintza eta kontrol eginkizunak bete behar dituztenez, produktuak, jarduerak eta instalazioak ikuskatzen ahalko dituzte, eta saltzaileei horiek betetzeko behar duten informazio eta dokumentazio guztia eskatzen ahalko diete.

22. artikulua. Kautelaz esku hartzeko arrazoia

Salgai jarritako produktuek kontsumitzaileen edo erabiltzaileen osasunerako edo segurtasunerako arriskuak sortzen ahal badute, kalitatean edo kantitatean iruzurra eragiten badute, faltsutu edo identifikatu ez badira edo merkaturatzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez badituzte, udal agintaritzak kautelazko esku-hartzea eta/edo konfiskatzea erabakitzen ahalko du, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen baldintzetan.

23. artikulua. Zehapenak ezartzeko prozedura

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteei zehapenak ezartzeko prozedura indarrean dagoen administrazio prozeduraren araudian ezarritakoa izanen da.

24. artikulua. Arau-haustek

Aplikatzekoak diren xedapen sektorialetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ordenantza honetako artikuluen arau-haustek honela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.



Hauek dira arau-hauste arinak:

Baimenean, ordenantza honetan edo 13/1989 Foru Legean jasotako xedapenak ez betetzea, baldin eta zuzeneko ondorio ekonomikorik ez badago eta kontsumitzaileei kalterik eragiten ez bazaie, betiere larritzat edo oso larritzat sailkatuta ez badaude.

Hauek dira arau-hauste larriak:

Arau-hauste arinak berriz egitea, hau da, urtebeteko epean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoz hala adierazi denean.

Zuzeneko garrantzi ekonomikoa dutenak edo kontsumitzaileei kalte egiten dietenak.

Osasun alorreko arau-hauste larriekin batera gertatzen direnak.

Agintariak eta haien agenteek zaintza eta kontrol eginkizunak betetzeko eskatzen dituzten datuak edo informazioa emateari behin eta berriz uko egitea, edo uko egitearekin batera agintarietako edo beren agenteetako indarkeriak, mehatxuak edo beste edozein presio egitea.

Araurik ez hausteko errekerimendua ez betetzea

Hauek dira oso arau-hauste larriak:

Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea. Berriz egite hori izanen da urtebeteko epean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoz hala deklaratu denean.

Dagokion salmenta baimenik ez izatea.

Osasun arloko oso arau-hauste larriekin batera gertatzen direnak edo pertsonen osasunerako eta segurtasunerako arrisku larria dakartenak.

Kontsumitzaileei kalte larriak eragiten dizkietenak.

Neurriz kanpoko etekin ekonomikoa dakarten arau-hausteak edo ordena ekonomikoa larriki aldatzen dutenak.

25. artikulua. Zehapenak

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko legedi orokorrean eta Sedentarioa ez den Merkataritzari buruzko uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legean aurreikusitakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, Udalarik dagokio arau-hauste arinak eta larriak honako taula honen arabera zehatzea:

Arau-hauste arinak 300 eurotik 1.000 eurora bitarteko isuna jarrita zehatuko dira.

Arau-hauste larriak 1.001 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna jarrita zehatuko dira.

Arau-hauste oso larriak 3.001 eurotik 10.000 eurora bitarteko isuna jarrita zehatuko dira, eta salmentarako baimena ezeztatuko da.

Kautelazko neurri gisa, merkantzien gaineko kautelazko neurriak hartzen ahalko dira, baldin eta abiatutako eginbideetan uste bada ez direla betetzen merkaturatzeko eskatzen diren gutxienerako baldintzak, eta konfiskatu egingen dira, agintari eskudunaren iritziz osasun arriskua badago edo ibilgailuak salmentarako behar den baimenik ez badu.



26. artikulua. Zehapenak mailakatzea

Zehapenak mailakatzeko, kontuan hartuko dira saldutako produktuen izaera, eragindako kalteak, arau-haustearen intentzionalitatea, errepikapena eta gizartean duen garrantzia.

27. artikulua. Zehapen prozedura

Zehapen prozedura alkatearen ebazpen baten bidez hasiko da, aurretik ofizios edo salaketa bidez egindako jarduketak eginik. Larritasun bereziko kasuetan, organo eskudunak jarduera etetea erabakitzen ahalko du kautelazko neurri gisa, ustez falta astunak edo oso astunak egiteagatik zehapen espedientea izapidetzen ari den bitartean.

Ebazpenean jarduketan instrukzio organoa izendatuko da, eta ustez erantzulea den pertsonari jakinaraziko zaio.

Organo instrukzio egileak kargu orri bat idatziko du, eta, bertan, honako hauek adieraziko ditu: egitateei dagokien arau-haustea, zein zehapen ezar daitekeen eta zein organo eskudunek ezar dezakeen. Era berean, ustezko erantzuleari jakinaraziko zaio, eta hark hamabost eguneko epea izanen du bere eskubidearen alde egokitzen jotzen dituen alegazioak egiteko.

Organo instrukzio egileak idatzitako kargu orrian honako hauek jasoko dira:

- A) Egiatzatutako egitateak, arau-haustea tipifikatzeko eta zehapena mailakatzekogarrantzitsuak direnak nabarmenduz.
- B) Ustez egindako arau-haustea, urratutako aginduak adierazita.
- C) Behar den zehapena, baita horren graduazioa eta kuantifikazioa ere.
- D) Prozedura ebazteko eskumena izan dezakeen organoa, eta eskumena esleitzen dion araua.

Alegazioak aurkezteko eta, hala badagokio, frogak egiteko epea iragan ondoren, eta beharrezkotzat jotzen diren eginbideak eginik, organo instrukzio egileak ebazpen proposamena eginen du, eta ebazpen proposamen hori alkatetzari igorriko dio espedientearekin batera. Alkatetzak, organo eskuduna den aldetik, dagokion ebazpena emanen du, edo, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen dituen eginbide osagarriak gauzatzeko aginduko du.

Alegazioetatik eta egindako frogatik egitate berriak edo desberdinak ondorioztatzen badira, edo kargu orrian aurreikusitakoa baino larritasun handiagoko kalifikazioa ondorioztatzen bada, organo instrukzio egileak kargu orri berri bat jakinaraziko dio interesdunari, dagokion zehapenarekin, hamabost eguneko epean nahi duen guztia alega dezan.

Zehapen prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta espedientean planteatutako gai guztiak ebatziko ditu.

Ebazpenean ezinen dira onartu prozeduran barna zehaztutakoez bestelako egitateak, nahiz eta haien balorazio juridikoa desberdina izan.

Ebazpena betearaztekoa izanen da administrazio bidea amaitzen denean.



Zehapen prozedura ebazteko gehieneko epea, arau-haustearen kalifikazioa edozein dela ere, sei hilabetekoa izanen da, zehapen espedientea hasteko ebazpena eman zen egunetik zenbatzen hasita. Era berean, epe hori luzatzen ahalko da, gehienez jota, beste sei hilabetera, ebazpen arrazoitua eginik.

28. artikulua. Beste administrazio jardun batzuk

1. Ordenantza honetan agindutakoa zaintzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen diren agintariek edo haien agenteek, eman daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna hobetze aldera, eta kautelazko neurri gisa, arau-haustearen xede diren ondasunak hartzen ahalko dituzte. Ondasun horiek udal lokaletan gordeko dira, prozedura ebatzi bitartean eta ezar daitekeen zehapenaren ordainketa ziurtatzeko neurri gisa. Produktuen esku-hartze hori dagokion aktan jasoko da, eta esku-hartzearen arrazoa justifikatuko da; interesdunari horren kopia emanen zaio, dokumentuan bertan hitzordua emanik.
2. Espedientea ebazteko agintaritza eskudunak zehapen osagarri gisa erabakitzen ahalko du faltsututako, iruzurrezko edo merkaturatzeko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten salgaiak konfiskatzea. Zehapenaren ondorio osagarri gisa, konfiskazioak zehapenaren arau berberak bete beharko ditu.
3. Atzemandako salgaiak ontziratu gabeko elikagaiak edo epe laburrean galkorrak badira, ongintza zentroren batera eramaten ahalko dira, osasun ikuskapena egin ondoren. Konfiskatutako elikagaiekin berdin jokatu da.

29. artikulua. Preskripzioa

1. Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hauste eta zehapenak, arinak badira, urtebetera preskribatuko dira, larriak badira, bi urtera, eta oso larriak, hiru urtera.
2. Arau-hausteen preskripzio epea arau-hausteak egin diren egunetik aurrera zenbatuko da. Preskripzioa etenen da, interesdunak zehapen prozeduraren berri izanik, prozedura hori hasten bada. Era berean, preskripzio epea berriz hasiko da, baldin eta zehapen prozedura hilabete bat baino gehiago geldirik badago, betiere ustez arduraduna den pertsonari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik bada.
3. Zehapenaren preskripzio epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtzeko egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen. Preskripzioa eten egingen da zehapen prozedura hasten bada, interesduna jakinaren gainean egonen, eta epea berriz iraganen da, baldin eta prozedura hilabete baino gehiago geldirik badago arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.



Xedapen iragankorra

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, debekatuta egonen dira bertan jasota ez dauden kaleko salmentako jarduera guztiak.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen dira orain onartzen den testuarekin bat ez datozen, kontraesanetan dauden edo bateraezinak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapena

Ordenantza hau NAO n argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

ZIRRIBORRON